

Tantaka: GREXIT?



Greziarena desagertu da hedabideetatik, gero eta gutxiago hitz egiten da herri horretan gertatzen denaz Badirudi Greziako arazo guztiak konpondu direla, baina ez, herri horren arazoek berdin dira. Greziako gobernuak erreskatearen atal berria negoziatu behar du Troikarekin. Eta honek sakrifizio gehiago eskatzen dio Siryza gobernuari. Alexis Tsiprasek dio ez duela murrizketa sozial gehiago onartuko, baina ... Greziako herriak sinetsi behar dio bere hitzari? Kantu hori lehenago entzun dugu eta promesa guztiak "txakurren ametzak" izan dira. Milioika pertsonak ez dute gizarte segurantzaren eskubiderik, langabeziaren tasa dagoeneko %23koa da eta jarraitzen du haztean, emigrazioaren bidea hartu duten pertsonak kontaezinak dira, jubilatuek jasotzen duten erretiroaren balioa erdira jaitsi da eta gehiago murriztu nahi du Troiak. Guzti honen aurrean jubilatuek ez dira isildu eta kaleak hartu dituzte euren pentsioak defendatzeko, nekazariak traktoreak atera dituzte errepideak eta autobideak ixten, langabetuek ere jarraitzen dute mobilizatzen. Borroka sozial eta sindikalak behin eta berriro saiatu da egoera hau aldatzen baina gobernuak beti errepresioarekin erantzun du, ezkerreko gobernu jendearen kontra, hau harrigarria!

Une honetan gutxi sinesten duten Greziako zorra ordainduko dela, ezinezkoa da, Greziako ekonomia itota dago, ezin burua altxatu eta orobat onartzen ari da euro eremutik ateratzea dela bide bakarra. Euroaren diktadurak ateak ixten dio herriari bere kabuz bizitza antolatzeke, pertsonak ez dute inolako aukerarik bizi modu duin bat lortzeko Troikaren Europa barruan. Hau guztiez ohartzen du Siryza alderdiak?